

■ **18:00etan.** Asanblada irekia egingo dute Astran.

ZAPATUAN


■ **19:30ean.** Plintxopotea ospatzen dabiltzala balliatuta, giza katea Merkuriotik Saráspera.

■ **Goizean.** Informazio gunea jarriko dute merkatu plazan.

ZAPATUAN

■ **19:00ean.** Manifestazioa Merkuriotik hasita. Egun guztian zehar egingo dituzte ekintzak.

Irudia Gernika-Lumo



SUTE «TXIKIA» OSPITALEAN

Sute «txiki» bat piztu zen atzo arratsaldean Gernika-Lumoko ospitalean. Segurtasun Sailaren arabera, SOS Deien bidez jaso zuten abisua, 18:40 aldera, eta ertzainak, udaltzainak eta suhiltzaileak joan ziren Aita Villasante kaleko osasun zentrorra. Udaltzaingoaren arabera, «arazo elektriko batek» sortu zuen sua. Ekainean inauguratu zuen ifigo Urkullu lehendakariak ospitalea, eta urrian ipini zuten martxan lairialdi zerbitzua. ENDIKAUURLEZAGA

aurkezpenean izan da

Endika Urlezaga

Jose Mari Gorroño Gernika-Lumoko alkateak Kolonbiako memoriaren eta bakearen aldeko zenbait ekitalditan parte hartu du egunotan. Hain zuzen, Kolonbiako Kultura Departamentuak, Administrazio publikoko Goi Eskolak eta Bogotako Memoriaren, Bakearen eta Berradiskidetzaren Aldeko Zentroak antolatutako nazioarteko mahainguru ba-

ten mahaingurua, eta, Gorroñoz gain, Argentinako, El Salvadorreko, Chileko, Guatemalako, Herrialde Katalanetako eta Kolonbiako hizlarietako parte hartu zuten. Mahaingurua «hausnarketarako eta elkarrizketarako gune bat» bihurtzea nahi zuten antolatzaileek. Hala, memoria historikoaren barruan parkeek, museoei eta gainontzeko eraikinekin duten garrantzia aztertu zuten bildutakoek. Benetan gertatu dena kontatuz, «etorkizuna eraikitzen hasitea» da erronka.

Gorroñoek, esaterako, Bakea-

izan duten garrantziak aritu zuten. Bestalde, *Gernika* koadroaren denboraldi baterako erakusketa-
ren aurkezpenean ere parte hartu zuten alkate gernikarrak. Gorroñoek koadroaren kopia hori eta oroigarri bat eraman zituen Kolonbiara, opari bezala. Hala, gernikarren eta kolonbiarren arteko harremanak sendotu nahi izan ditu udalak.

Alkatea abenduko bigarren astetarako bueltatuko da Gernika-Lumora. Bitartean, Begoña Landa alkateordeak hartuko du udalaren gidaritza.

Gerrak suntsitutako herrien topaketan da Gernika-Lumo

Begoña Landa alkateordeak eta Luis Iriondok ordezkatu dute Gernika-Lumo gaurko ekitaldian

ako hiriburua erre egin zutela gogoratzen. Donostiako Kursaal-
an batuko dira herrialde desberdinetako ordezkariak.

Gernika-Lumoko herritarrez gain, Dresdengo (Alemania), Sarajevoko (Bosnia), Milango (Italia), Wroklaw-ko (Polonia), Gernollersko (Herrialde Katalanak) eta Madrilgo (Espainia) ordezkariak parte hartuko dute topaketan. Hala, nazioarteko topaketatik «ondorio oso baliagarriak» ateratzea espero dute antolatzaileek.

Donostiako udalak azaldu duenez, «esperientzia desberdinetan

«tik ikastea» da helburu nagusia. Izan ere, esperientzia horietatik abiatuta, gatazka armatuak buztatu hausturaketa bat egin nahi dute. Hala egingez, etorkizuneko gerrak ekidin daitezkeela deritzote.

10:30ean hasiko da Landaren saioa, eta 15:30ean egingo du berba Iriondok. Bonbardaketatik bizirik atera zen gernikarrak *Bizitza 1937ko bonbardaketa eta gero* hitzaldia emango du. 18:15ean, bestalde, Iriondok berak nazioarteko mahainguru batean parte hartuko du, Donostiako topaketei amaiera emanez.